

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Aipagarria da, gure bezeroek erosten dituzten produktuak beraiek nahi duten eran iritsi behar direla haiengana. Arrazoi hori dela tarteko, kanalen konbinazio zuzenak aurkitu behar ditugu gure erosleak pozik egon daitezen egindako erosketarekin, horrela, gure enpresan erosten jarraitu dezaten.



Gure enpresari dagokionez, gure produktuak bezeroengana iritsiko dira kanal propioen bitartez, hots, denda propioak, online plataformak, etab erabiliz. Baina aldi berean, elkartutako kanalen bidez ere eskuratu halako dira, hau da, gure produktuak jada sortuta dagoen enpresa baten esku jarriko ditugu hauek bezeroei saltzeko.

Beraz, guk erabiliko dugun kanala, bi metodo hauen arteko nahasketa izango da. Hortaz, esan dezakegu gure ekoizkinak bi kanal motatatik banatuko ditugula: kanal zuzenak eta zeharkako kanalak. Kanal zuzenen bidez gure produktuak bitartekaririk gabe salduko ditugu. Zeharkakoen kasuan berriz, gure produktuak beste enpresa batean salgai egongo dira honela bezeroek eskuratu ditzaten.